

P.K. 1082

Stolberg (Harz) Preussischer Hof

30/09/1917 3H

01:39 minutu

Gastzimmer (Lagunen gelan – chambre d'amis)

Helle kräftige Stimme mit guter Konsonanz. (Wilh. Doegen)/ Voix vive et forte avec une bonne consonance

1.Gernikako arbola

PK1_82__1_ [No. 55068]

PK1_82__11 [No. 55069]

PK. 1082.1

Schriftsprachlicher Text (Texte écrit)

1.Gernikako arbola da bedeinkatua,
Eskualdunen artean guztiz maithatua.
Eman eta zabal zazu munduan fruitua,
Adoratzen zaitugu arbola saindua.

2.Badu mila urtheren ingurua erraiten dutela,
Jinkoak landatu duela Gernikako arbola.
Zaude beraz chutik, orai da dembora.
Erortzen bazira, arras galduak gira.

3.Etzare eroriko, arbola maitea,
Atchikian badago Bizkaiako junta,
Lau probintziek dugu zuekin hartuko parthea,
Bakean bizi dadin eskualdun jendea.

4.Bethi bizi dadin jainkoari galde egiteko
Gaitezen eman guziak belauniko.
Bihotzaren erditik galde egin eta gero,
Arbola biziko da orai eta gero.

5.Arbolaren botatzea dutela pentsatu,
Eskualherri guzian orok badakigu.
Ba bainan orai denek dembora badugu,
Error ez dadin, atchik dezagun.

6.Zu zaude bethi udaberriko arbola,
Datcharik gabeko azken lorea,
Erdiratzen baduzu gure bihotza
Eman daukuzu zure fruitua galdu gabe dembora.

7. Arbolak dauku ihardetsi, bizi gaiten prestuki,
Otoizteko jainkoa bihotzaren zolatik
Bethi bakhean, ez dugu nahi gerlarik,
Hemen maithatzeko gure dretsua chuchenik.

8. Othoitz dezagun jaun jainkoa,
Orai eta bethi eman lezagun bakhea,
Eta ere idortzen zen lurrari indarra
Eta haren benedizioea eskualherrira.